



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_651/21_03

Ekainaren 3an, *Tramitagune* tresna informatikoaren bitartez, **Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege-aurreproiektuaren** berri jaso dugu Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzan. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Aholkularitza juridikoak bidali eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 73/2021, otsailaren 23ko Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin-behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”.

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena maiatzaren 14koa da eta, ekainaren 6koa zerbitzu juridikoaren txostena. Bete da, beraz, aipatu Dekretuak xede horrekin araututakoa.

Bestalde, hasieratik *Tramitagunen* zeuden Lege-aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko testuak; beraz, horrela eginda, bete egin zen abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Lege proiektuaren xedea, 1. artikuluan esaten den bezala, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea da.

66. artikuluan diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko prozeduraren hasiera arautzen da. Prozedura hasteko, eskaera interesdunak berak egin behar du, eta hori Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak ezartzen duen eredu normalizatuaren arabera egin behar da. Eredu normalizatu horrek EAEko bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz, egon beharko du eskuragarri.

II. kapituluak bere 134. artikuluan esaten du Gizarteratzeko Euskal Kontseilua zer den eta nortzuk izango diren partaideak. Jakinda Kontseilu honen egitekoak zeintzuk diren – 135. artikuluan arautzen dira-, batzordekideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu ahal dutenez eta, era berean, gainontzeko batzordekideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatu beharko dituztenez, komenigarria ikusten dugu euskararen ezagutza kontuan izatea batzordeko partaideak izendatzerakoan.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria